

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

150.000 eskola-umek ikasi dute Parque Polo parkean, martxan daramatzan 19 urte hauetan

Beaumont kontseilariak oroigarri bat eman dio Liceo Monjardín ikastetxeko ikasle bati

Ostirala, 2018.eko urriak 5

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumont Parque Polo parkean izan da, haren instalazioetan nagusiki eskola-umeei eskaintzen zaizkien prestakuntza-ekintzetan 150.000. bisita jaso delako.

Maddalen Lopetegui Oyaga, Liceo Monjardín ikastetxeko lehen hezkuntzako 6. mailako 26 ikaskideetako bat, izan da 150.000. eskola-umea; hori dela-eta, kontseilariak bizikletarako argi sorta, kaskoa eta banda islatzaile motxila eman dizkio, bidean segurtasun handiagoz ibil dadin. Beste 25 umeek ere bizikletarako argi sorta jaso dute, gidariak bidean hobeto ikus ditzaten.

Barneko zuzendari nagusi Agustín Gastaminza eta Segurtasun Politiken Garapeneko zuzendari Toño García ere kontseilariarekin izan dira, eta, Volkswageneko ordezkari gisa, besteak beste, Giza Baliabideetako zuzendari Kerstin Scholz eta Ekoizpeneko zuzendari Miguel Angel Grijalba aritu dira. Parque Polo parkeko koordinatzaile Estefanía Santosek bertako ereduaren eta jardueraren aurkezpena egin die bi taldeei; adierazi duenez, Foruzaingoa eta Iruñeko Udaltzaingoa trebatzen dituzte.

1999an zabaldu zen, bide-hezkuntzako prestakuntza-programak garatzeko. Haien barruan, jarduera teoriko eta praktikoak antolatzen dira, mugikortasun jasangarria sustatzeko eta zirkulazio-arauak ezagutarazteko. Volkswagen Navarra-k lagatako 20.320 m²-ko lurzati batean dago eta Nafarroako Gobernuaren laguntza du.



Agintariak eta Liceo Monjardín ikastetxeko ume talde bat Parque Polo parkean, gaur goizean.

Hain zuzen ere, aurtengo martxoaren 1ean, Parque Polo Fundazioaren eta Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren

arteko lankidetzeta-hitzarmena berritu zen, 2013-2020 aldirako Bide Segurtasuneko Nafarroako Estrategiako «Hezkuntza eta trebakuntza» jardueren barruan.

19 urteotan, nagusiki 3 eta 15 urte bitarteko 150.000 eskola-umek (aurten 7.715ek) hartu dute parte parkearen hezkuntza-programa eta -ekintzetan. Eskola-umeentzako jarduerak ez ezik, beste programa batzuek ere garrantzi handia dute, hala nola «Juntos nos movemos» izenekoak; irailean, desgaitasuna duten pertsonei zuzenduta egon da, eta, aurten, 488 parte-hartzaile izan ditu.

Aipatzekoa da, baita ere, prestakuntza-jardueretan Berritzu hezkuntza-elkartarekin elkarlanean aritu dela, bide-segurtasuneko arau-haustek egin dituzten adingabeei orduak egiten uzteko. Adingabe arau-haustek irakasle bihurtzen dira eta beste ikuspegi batetik egiten diote aurre errealitateari.

Ikasturtean zehar, ikastetxeetarako egiten da lan: haur-eskoletan hasten gara, eta, ondoren, haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako etapekin jarraitzen dugu. Programak euskaraz eta gaztelaniaz (% 100ean), ingelesez (% 50ean), eta alemanez eta frantsesez (% 25ean) daude.

Oporraldian (adibidez, Aste Santuaren ondorengo astean eta udan), bide-hezkuntzako kanpamentuak ematen dira, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta alemanez, navarra.es webguneko segurtasunaren orrian dagoen [bide-hezkuntza](#) atalean agertzen den bezala.

Beste une batzuk ere erabiltzen dira (adibidez, asteburuak eta arratsaldeak), hezkuntzako aisia-programetarako. Haietan, hauek garatzen dira: bide-hezkuntzako eta -segurtasuneko jarduerak (hala nola APYMAS ikasleen gurasoen elkarteentzako jardunaldiak); enpresetarako hezkuntza-ekintzak (langileen seme-alabak); belaunaldien arteko programak (aitona-amonak, bilobekin); kontzientziazio-ekintzak Mugikortasun Astearen barruan; Parke Polo proiektuaren aurkezpena biltzarretan; edo hezkuntza-jarduerak.

Halaber, foruzain eta udaltzain berrien praktikak egiten dira, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdietako Eskolaren bidez. Bizikletako eta motorreko praktikak ez ezik, zenbait ekintza ere egiten dira Los Arcoseko zirkuituan.

María José Beaumont kontseilariak adierazi duenez, Nafarroako Gobernuak «bide-hezkuntzarekin erlazionatutako jarduerak sustatzen jarraitu nahi du Nafarroako umeen artean, arauak bete eta elkar errespetatu beharrez kontzientziatuta egongo diren bide-erabiltzaileak izan daitezen lortzeko; horrela, kaleak eta errepideak gero eta seguruagoak izango dira, eta trafiko-istripuak eta haien ondorio tragikoak murriztuko dira».



Beaumontek Maddalen Lopetegui kaskoa eman dio Volkswagen Nafarroako presidente Emilio Sáenz lehendakariaren aurrean.